

2022ko azaroa, Euskal AEn, ondasunen esportazioetan % 20tik gorako hazkuntzak izan dituen ondoz ondoko zortzigarren hilabetea da

2022ko lehen hamaika hiletan metatutako kanpo-saldoak 3.252 milioi euroko superabita izan du, eta esportazioak 30.000 milioi eurotik gorakoak izan dira

Euskal AEko ondasunen **esportazioek** (3.128 milioi euro), 2022ko azaroan, aurreko urteko hil beraren aldean, % 20,3ko igoera izan dute, produktu energetikoen % 85,8ko eta ez-energetikoen % 17,0ko igoeraren ondorioz, Eustaten datuen arabera. Hau ondasunen esportazioetan % 20tik gorako hazkuntzak izan dituen ondoz ondoko zortzigarren hilabetea da, eta % 50 izan da handiena, 2022ko maiatzean.

Inportazioen kasuan (2.524 milioi), % 16,6ko igoera izan da. Inportazio ez-energetikoei % 8,4 egin dute gora, eta energetikoei, % 44,7.

2022ko azaroan, merkataritza-saldo positiboa izan da (604,5 milioi) eta estaldura-tasa % 124,0koa.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Azaroa 2022

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Azaroa			Azaroa		
	2021	2022	Gehikuntza (%)	2021	2022	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETE, GUZTIRA	2.600.375	3.128.372	20,3	2.163.760	2.523.851	16,6
ENERGIAZKO GAIK	125.301	232.792	85,8	490.463	709.658	44,7
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	2.475.075	2.895.580	17,0	1.673.297	1.814.193	8,4
URTEKO METATUA	23.584.357	30.200.457	28,1	19.101.104	26.948.445	41,1
ENERGIAZKO GAIK	1.240.232	2.597.879	109,5	4.071.688	7.787.874	91,3
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	22.344.125	27.602.577	23,5	15.029.416	19.160.571	27,5
ARABA / ÁLAVA						
HILABETE, GUZTIRA	817.449	1.028.844	25,9	516.037	528.725	2,5
URTEKO METATUA	6.812.091	8.779.370	28,9	4.165.790	5.218.151	25,3
BIZKAIA						
HILABETE, GUZTIRA	978.854	1.156.935	18,2	1.189.633	1.507.733	26,7
URTEKO METATUA	9.391.493	12.296.083	30,9	10.719.665	16.442.596	53,4
GIPUZKOA						
HILABETE, GUZTIRA	804.073	942.594	17,2	458.089	487.393	6,4
URTEKO METATUA	7.380.773	9.125.004	23,6	4.215.648	5.287.698	25,4

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2023ko Urtarrilaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal AEko hiru lurralde historikoei hazkuntza-tasa positiboak izan dituzte esportazioetan, eta igoera-ehunekoa % 25,9koa izan da Araban, % 18,2koa Bizkaian eta % 17,2koa Gipuzkoan. Bizkaiko esportazio ez-energetikoei % 8,4 egin dute gora; Arabakoek, % 25,7, eta Gipuzkoakoek, % 17,3. Esportazio energetikoei, Bizkaiaren kasuan, % 85,6 egin dute gora.

Araban, esportazioak honako hauetan kontzentratu dira hilabete honetan: “*Garraio-materiala*” (guztizkoaren % 57), % 18,3ko igoerarekin (587,7 milioi esportatu, guztira), “*Metalak eta haren manufakturak*” (urte arteko % 54,9ko igoera) eta “*Bitxigintza eta bisuteria*” (40,5 milioi esportatu). Gipuzkoan, gora egin dute bi arantzel-partida nagusien salmentek: “*Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak*” (% 25,2) eta “*Metalak eta haien manufakturak*” (% 24,2). Baina rankingeko hirugarrenak, “*Garraio-materiala*”k, atzera egin du % 18,0.

Bizkaiaren kasuan, berriz, hazi egin dira “*Garraio-materiala*” partidaren esportazioak (% 26,2), bai eta “*Koipe eta oliak*” (% 245,4) eta “*Produktu mineralak eta energetikoak*” (% 83,8) partidenak ere.

Jatorri-helmugako herrialdeak, 2022ko azaroa

2022ko azaroan, bost herrialdek (Alemania, Frantzia, Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Italia) eratu dute Euskal AEko bezero nagusien taldea; esportatutako guztizkoaren % 50,4 hartzen dute (1.576 milioi). Haietako hiru EB27koak dira; entitate horri % 62,4 dagokio.

Alemaniarra eginiko esportazioek % 21,3 egin dute gora; Frantziarra eginikoek, % 0,8; Estatu Batuetara eginikoek, % 58,8; Erresuma Batuarra eginikoek, % 7,5, eta Italiarra eginikoek, % 16,8. Belgikarra, Portugalera eta Herbeheretara eginikoak ere areagotu dira (% 43,5, % 46,4 eta % 16,2, hurrenez hurren). Europatik kanpora, Marokokoak, Mexikokoak, Iranekoak eta Txinakoak handitu dira (% 129,1, % 135,2 eta % 5,8) eta behera egin dute, nabarmen, Errusiakoek (–% 74,0).

Gure inportazioen % 51 EB27tik etorri dira. Europako herrialde garrantzitsuenen artean, Herbeheretatik inportatutakoa nabarmentzen da (175,9 milioi eta % 144,6ko urte arteko hazkuntza); Frantziakoak (% 7,4) edo Poloniakoak (% 26,4) ere areagotu dira. Erresuma Batuan, % 28,2ko atzerapena egon da.

Munduko gainerako herrialdeak aztertuta ikusten da sendotu egin direla honako herrialde hauetan jatorria duten inportazioak: Estatu Batuak (% 284,4 eta 135 milioi inportatu), Mexiko (% 128,8 eta 220 milioi inportatu) eta Brasil (% 52,7 eta 52 milioi). Atzera egin dute, berriz, Txinakoek (–% 16,3 eta 156 milioi).

Errusiaren kasuan, % 11,9ko atzerakada egon da; 2021eko azaroan, 116,7 milioi izatetik 2022ko hil berean 102,9 milioi izatera igaro da; haietatik, 95,9 milioi “energetikoak” izan dira, zehazki, “Petrolioaren olio finduenak” (sufre gutxiko gasolioak).

Gure inportazio energetikoak honela banatu dira: 411 milioi Amerikakoak (% 58) eta, haietatik, 215 milioi Mexikokoak, 93 milioi Guyanakoak, 58 milioi Estatu Batuetakoak eta 44 Brasilekoak; 177 milioi Europakoak (% 24,9) eta, haietatik, 96 milioi Errusiakoak, 40 Norvegiakoak eta 13 Belgikakoak; 63 milioi Asiakoak (% 8,8) eta, haietatik, 58 Qatarrekoak, eta, azkenik, 59 milioi Afrikakoak (% 8,3), ia erabat Libiakoak.

Merkaturatutako produktuak, 2022ko azaroa

Xehetasunak ikusteko, 2022ko azaroan ikusten da hamar **arantzel-partida** nagusiek esportazioen % 43,2 kontzentratu dutela; baterako balioa 1.350,8 milioi eurokoa izan da.

Talde horren barruan, esanguratsuak dira, besteak beste, honako partida hauetako hazkuntza-tasak: “*Petrolioaren olio finduak*” (% 84,6 eta 214 milioi; alegia, 98 milioi gehiago aurreko urteko hil berean baino), “*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*” (% 55,6 eta 348 milioi esportatu), “*Automobilentzako zati eta osagarriak*” (% 14,2 eta 186 milioi esportatu), “*Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak*” (% 78,7 eta 85 milioi) eta “*Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako*” (0tik 51 milioira igaro da).

Espektroa 25 partida garrantzitsuenetara zabaltzen badugu, nabarmentzekoa da “*Metal preziatuzko bitxigintzako artikulak, baita estaliak edo xaflatuak ere*” produktuaren igoera handia (% 1.354,5 eta aurreko urteko hilabete berean baino 40,8 milioi gehiago eta, hilabete honetan, guztira, 43,8 milioi). Igoera handia izan dute, era berean, honako produktu hauek: “*Biodiesela eta bere nahasketak*” (6 milioitik 22ra igaro da) eta “*Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiatazleak, etab.*” (% 211,4ko igoera).

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Azaroa 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.600.375	3.128.372	100,0	20,3
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	223.549	347.851	11,1	55,6
Petrolioaren olio finduak	115.919	213.968	6,8	84,6
Automobilentzako zati eta osagarriak	163.035	186.225	6,0	14,2
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	213.483	176.330	5,6	-17,4
Kautxuzko pneumatiko berriak	97.361	98.733	3,2	1,4
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	68.543	93.190	3,0	36,0
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	47.574	85.012	2,7	78,7
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	0	51.296	1,6	-
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	40.230	49.115	1,6	22,1
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	41.615	49.070	1,6	17,9
Metal preziatuzko bitxigintzako gaiak, baita estaliak edo xaflatuak ere	3.009	43.772	1,4	1.354,5
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	14.025	43.677	1,4	211,4
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	26.082	38.257	1,2	46,7
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	26.290	37.137	1,2	41,3
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xaflak eta tirak	44.584	34.867	1,1	-21,8
Burdina edo altzairuzko gainerako enbrazatutako	30.563	31.142	1,0	1,9
Xaflen bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	18.746	26.687	0,9	42,4
Ardoa, mahats freskoarena	25.952	26.142	0,8	0,7
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak...	19.593	24.513	0,8	25,1
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	20.324	23.958	0,8	17,9
Arrain izoztua xerratu gabe	16.705	23.062	0,7	38,1
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste enbrazatutako	18.191	22.489	0,7	23,6
Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisan % 70etik beherako edukiarekin	6.237	22.329	0,7	258,0
Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	22.736	21.232	0,7	-6,6
Metal arruntzeko giltzarriak, sarraila, morroilo eta giltzak	17.730	20.674	0,7	16,6

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Urtarrilaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioen kasuan, arantzel-partidetan, garrantzitsuenak, “*Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak*” (guztizkoaren % 17,8) partidak, % 9,5eko hazkuntza izan du, 2021eko hil berean baino 39 milioi gehiago, 449,5 milioiko guztizko erosketetan.

Joera positibo horrekin bat datoz arantzel-partida nagusi gehienak. Haien artean, nabarmentzekoa da honako hauen igoera: “*Biodiesela eta bere nahasketak*” (30,6 milioi inportatzen dira eta 22,3 milioi esportatu), “*Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak*” (% 229,9 eta aurreko urteko hil berean baino 75,2 milioi gehiago inportatuta) eta “*Petrolioaren olio finduak*” (% 205,8; haietatik, 128,9 milioi inportatu dira).

ARABA. Esportazioak 2022ko azaroan

Arabako esportazioak % 25,9 hazi dira, neurri handi batean, honako hauetan izan den igoeraren ondorioz: “*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*” (% 56,6 eta 344,4 milioi esportatuta, guztira), “*Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak*” (% 143,3 eta 78,6 milioi

esportatuta), “Altzairu herdoilgaitza, lingotetan edo bestelako forma primarioekin” (% 462,7) eta “Metal preziatuzko bitxigintzako artikulak, baita estaliak edo xaflatuak ere” (40,5 milioi esportatu)

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Azaroa 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	817.449	1.028.844	100,0	25,9
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	219.974	344.441	33,5	56,6
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	213.351	176.225	17,1	-17,4
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	32.320	78.623	7,6	143,3
Automobilentzako zati eta osagarriak	45.366	47.723	4,6	5,2
Metal preziatuzko bitxigintzako gaiak, baita estaliak edo xaflatuak ere	156	40.476	3,9	-
Kautxuzko pneumatiko berriak	30.528	32.820	3,2	7,5
Ardoa, mahats freskoarena	23.908	23.984	2,3	0,3
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	16.127	15.328	1,5	-5,0
Metal arruntezko ontzietarako tapoiak, tapak eta beste osagarri batzuk	9.052	14.866	1,4	64,2
Altzairu herdoilgaitza, lingotetan edo bestelako forma primarioekin	1.875	10.553	1,0	462,7

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Urtarrilaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

BIZKAIA. Esportazioak 2022ko azaroan

Bizkaiko lurralde historikotik eginiko esportazioek % 18,2 egin dute gora, aurreko urtearekin alderatuta. Hamar partida nagusietatik, esportatzeko ahalegin horretan honako hauek parte hartu dute gehien: “Petrolioaren olio finduak” (% 84,1eko igoera eta 211,3 milioi esportatuta), “Biodiesela eta haren nahasketak” (% 258,0 eta 22,3 milioi esportatuta), “Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak” (% 60,4 eta 24,3 milioi) eta “Automobilentzako zati eta osagarriak” (69,7 milioi esportatu).

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Azaroa 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	978.854	1.156.935	100,0	18,2
Petrolioaren olio finduak	114.743	211.284	18,3	84,1
Automobilentzako zati eta osagarriak	57.654	69.696	6,0	20,9
Kautxuzko pneumatiko berriak	66.393	65.234	5,6	-1,7
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	39.579	47.248	4,1	19,4
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	21.726	30.973	2,7	42,6
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xaflak eta tirak	35.612	29.655	2,6	-16,7
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	15.172	24.340	2,1	60,4
Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisan % 70etik beherako edukiarekin	6.237	22.329	1,9	258,0
Arrain izoztua xerratu gabe	16.302	22.236	1,9	36,4
Turboreaktoreak, turbopropultsazailak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	15.322	19.802	1,7	29,2

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Urtarrilaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

GIPUZKOA. Esportazioak 2022ko azaroan

Gipuzkoako esportazioek % 17,2 egin dute gora, eta, haien partida nagusien artean, honako hauen igoera nabarmentzen da: “Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetaarako”, guztira 51,3 milioi esportatu; kopuru horretatik, 27,2 milioi Belgikari, 13,7 Herbeherei, 5,5 milioi Norvegiari eta 4,9 milioi Israeli. Bestalde, “Ilgogailuak, eskailera mekanikoak, garraiatzaileak, etab.” (urte arteko % 273,2ko hazkuntza eta 35,5 milioi), “Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak” (% 31,4 eta 86,9 milioi) eta “Ibilgailuen zati eta osagarriak” (% 14,6 eta 68,8 milioi) ere nabarmentzen dira.

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Azaroa 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	804.073	942.594	100,0	17,2
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	66.143	86.893	9,2	31,4
Automobilitzako zati eta osagarriak	60.015	68.805	7,3	14,6
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetaarako	0	51.296	5,4	-
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	30.053	35.545	3,8	18,3
Ilgogailuak, eskailera mekanikoak, garraiatzaileak, etab.	9.507	35.486	3,8	273,2
Metal arruntzko giltzarap, sarraila, morroilo eta giltzak	16.203	19.345	2,1	19,4
Hariak, isolatutako eroale elektrikoko kableak eta zuntz optikoko kableak	18.682	17.630	1,9	-5,6
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturrak	13.313	16.313	1,7	22,5
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	50.566	15.810	1,7	-68,7
Paper eta kartoi mundrunak, gomaztuak, itsasgarriak, plastifikatuak edo argizariz estaliak edo antzekoak	9.324	15.207	1,6	63,1

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Urtarrilaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkatitzaileen estatistika

2022KO METATUA (URTARRILA-AZAROA): kanpoko saldoak 3.252 milioi euroko superabita izan du, eta estaldura-tasa % 112,1ekoa da

2022ko lehen hamaika hilotan, Euskal AEko **esportazioek** % 28,1eko urte arteko igoera izan dute, aurreko urteko aldi beraren aldean; alegia, 6.616 milioi euro gehiago. Aldi horretan, zenbateko esportatzailea 30.200 milioikoa izan da, eta kopuru horri Bizkaiak egin dio ekarpenik handiena, 12.296 milioikoa (guztizkoaren % 40,7), gero Gipuzkoak (9.125 milioi) eta, ondoren, Arabak (8.779 milioi).

Bizkaiko esportazioek, gainera, urte arteko hazkuntza handiena izan dute (% 30,9), 2021ean baino 2.905 milioi gehiago. Araban, hazkuntza % 28,9koa izan da (1.967 milioi gehiago) eta, Gipuzkoan, % 23,6koa (1.744 milioi gehiago).

Esportatutako produktu mota kontuan hartuta, egiaztatu da esportazioek hazkuntzak izan dituztela, bai “Produktu energetikoenek” (1.357,6 milioi gehiago), bai “Produktu ez-energetikoenek” (5.258,5 milioi gehiago 2021eko aldi bereko metatua baino).

Gehien saldu diren hamar produktuek (arantzel-partidak) guztizkoaren % 41,4 kontzentratzen dute, 12.509,6 milioiko zenbatekoarekin.

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Azaroa 2022

	Kodea	Izendapena	Mila euro
		ESPORTAZIOAK GUZTIRA	30.200.457
1	8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	2.495.096
2	2710	Petrolioaren olio finduak	2.391.252
3	8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	1.976.479
4	8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	1.643.093
5	4011	Kautxuzko pneumatiko berriak	1.135.782
6	7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	809.744
7	7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	623.739
8	8481	Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	535.243
9	9990	Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	457.681
10	7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	441.534
11	8603	Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	426.190
12	7326	Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	389.544
13	7228	Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	357.409
14	7222	Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	352.722
15	7306	Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	292.739
16	7308	Xafien bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	257.517
17	8483	Transmisio-ardatzak, kojineak, engranajeak, enbrageak....	247.694
18	8428	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	243.378
19	8504	Transformadore elektrikoak, bihurtgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	240.911
20	7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	239.026
21	7601	Landu gabeko aluminioa	235.770
22	1518	Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	234.566
23	8544	Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	230.933
24	8301	Metal arruntezko giltzarro, sarraila, morroilo eta giltzak	217.181
25	2204	Ardoa, mahats freskoarena	215.808

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Urtarrilaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” Euskal AEko esportazio-bolumen handiena duen partida da (2.495,1 milioi esportatu eta % 25,7ko hazkuntza-tasa).

Gehien hazi diren produktuen artean, honako hauek nabarmendu behar dira: **“Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako”** (% 1.139,9 eta 426,2 milioi euro esportatu), **“Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak”** (% 111,0 eta 623,7 milioi) eta **“Petrolioaren olio finduak”** (% 125,7 eta 2.391,3 milioi).

Kontuan hartzeko moduko beste hazkuntza batzuk honako hauek dira: **“Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak”**, **“Salgaiak garraiatzeko automobilak”**, **“Ibilgailuen zati eta osagarriak”** eta **“Kautxuzko pneumatiko berriak”**; % 39,3ko, % 17,8ko, % 22,3ko eta % 16,0ko aldakuntza positiboak dituzte, hurrenez hurren.


Alemania izan da esportazioen helmugako herrialdeen sailkapeneko buru (4.731 milioi), eta, ondoren, oso gertutik, Frantzia (4.580 milioi) eta, urrunago, Estatu Batuak (2.017 milioi) Herbehereak (1.921 milioi) eta Erresuma Batua (1.851 milioi); hala, bost herrialdeen artean, esportazioen % 50 hartzen da.

Herrialde horiei dagokienez, estaldura-tasak honako hauek dira: Alemaniaren kasuan, % 138,9koa; Herbeheretan, % 185,2; Frantziaren kasuan, % 201,5, eta Erresuma Batuen kasuan, % 221,4. Estatu Batuen kasuan, metatu honetan % 102,7ra iristea lortu da, eta, hala, merkataritza-balantza pixka bat positiboa izan da, herrialde horri dagokionez, hilabete defizitarioen ondoren.

Euskal AErako **inportazioen** metatua 26.948 milioi euro ingurukoa da. Zifra hori urte artean erkatuz gero, 2021eko aldi berean erregistratutakoa baino 7.847 milioi handiagoa dela ikusten dugu. % 41,1eko gorakada hori izan da, zati handi batean, Bizkaiko lurraldean (16.442,6 milioiko balioa duten inportazioak ditu) % 53,4ko gorakada egon delako, alegia, aurreko urteko aldi berean baino 5.722,9 milioi gehiago. Araban ere inportazioek gora egin dute, % 25,3, 1.052,4 milioi euro gehiago, eta, Gipuzkoan, % 25,4eko igoera izan dute eta 1.072,0 milioi euro gehiago; inportatutakoaren balioa 5.218,2 eta 5.287,7 milioi euro izan da, hurrenez hurren, bi lurralde horietan.

“Produktu energetikoen” inportazioak % 91,3 egin du gora, aurreko urteko aldi beraren aldean, eta “Produktu ez-energetikoenak”, % 27,5.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2022ko lehen hamaika hiletan, 3.252 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta aldeko estaldura-tasari eustea dakar, % 112,1ekoa.



Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62